

## TEKNOLOGIA

## Beldurra, aldaketak eta zientzia



DIANA FRANCO

**XX.** mende hasieran, Erresuma Batuan elektrifikazioaren erresistentzia handia izan zen. Frantzia eta Espainian elektrifikazioa 1920an jada abian zen bitartean, Ingalaterran 1940. urterarte ez zen bideratzen hasi. Arrazoiak: gas konpainiek, merkaturak ez galtzeko, elektrifikazioarekiko beldurra sustatu zuten herriararen artean.

Aldaketa teknologikoak gizarteratzeko historian egin den beldurraren erabilerari heldu nahi diot orain. Beldurra, ezer ez bezala, gizakiak mobilizatzeko tresna bat da, gure ongizatea ziurtatzeko dugun mekanismoa den heinean. Historikoki, beldurra sartu digute, edota gure beldurrak ezjakintasunaren parean jarri dira aldaketak sustatzeko, aldaketa berez onuragarritzat ulertzen ez zen kasuetan. Alegia, beldurra berdinean erabili dute aldaketak sustatu nahi dituztenek eta aldaketak eragotzi nahi dituztenek. Halakoez, zientzia ulertu da argia emateko tresna gisa. Zoritxarrez, zientzia egitea ez dago denon esku, eta jorratu dituen bideak oso lotuta daude lortutako finantzazioari.

Eremu digitalean bizi dugun garaia Ingalaterrako elektrifikazioaren kasua ekartzen dit burura. Alde batetik ditugu segurtasunaren beldurra sustatzen dutenak, defendatzen duten eredu azpiegituren kontzientzia izanik: "Gure azpiegiturak seguruak dira, leku bakar batean daude, gotorleku bat, eta bertara inor ezin da sartu". Beste aldetik, azpiegituren banaketa bilatzen dutenak daude, eta kasu honetan sustatzen den beldurra da pribatutasun eza eta kontrola: "Azpiegiturak kontzentratzen dituzten korporazio handien negozio ereduak zure datuetan oinarritzen da, eta zure bizitzan eragin dezakete euren bezeroen onurarako". Herritarrok bi aldeko mezuak ditugu. Zer egin? Korporazio handien hodeien zerbitzuekin jarraitu ala sare banatuak proposatzen dituztenen ideia berriak aztertu? Non dago zientzia egun? Zelan aztertu ari da gai hau? Natura ez bezala, gizakion teknologia batzuk itxiak dira, ez dira auditagarriak, eta badirudi zientziak hor ezin duela argirik eman. Ezjakintasun eredu berri batean bizi beharko al dugu? ●

## NAZIOARTEA



PETER MORRISON - AP

## Mugarri berria Ipar Irlandan

AXIER LOPEZ

**S**inn Féin-ek (SF) Ipar Irlandako hauteskundeak irabazi ditu, historian mugarria ezarri. Alderdiaren iparraldeko buru Michelle O'Neill-ek eskura dauka lehen ministro izatea, Sei Konderrietako estatu artifizialaren 101 urteko historian politikari nazionalista batek inoiz lortu ez duena. Garaipen honek berretsi du SF-ren asmo nagusia: mugaren bi aldeetan lehen indar bilakatu eta gobernuak eskuratzea. Hori hiru urte barru lor lezake, Irlandako Errepublikako hauteskundeak izango baitira.

SF-k botoen %29 lortu du, 2017ko bozetan baino 1,1 gehiago. Alderdi unionista nagusiak, DUPek, orain arte indarririk bozkatuena izan denak ageriko jaitsiera izan du: %21,3 (-6,7). Hirugarren postua zentro liberaleko Aliantza alderdiak eskuratu du, unionista-nazionalista dikotomiatik kanpo kokatutako indarrak %13,5 lortu du (+4,5).

DUP "aurkakoen" alderdi bilakatu da. LGTBI kolektiboen eskubideen aurkakoa, abortu eskubidearen aurkakoa, migratzaileak hartzearen aurkakoa, erreferendumaren aurkakoa, eta orain Ostiral Santuko Akordioek agintzen dutenaren aurkakoa ere bai. DUPek botere partekatuko gobernuari boikot egiteko mehatxu egin du. DUPen baldintza da gobernu britainiarrak eta Europar Batasunak aurrerapen handiak lortzea Brexit-aren osteko merkataritza-elkarriketetan. Izan ere, unionistek uste dute muga bat ezarriko dutela Irlandako iparraldearen neurri handi batean EBko

eremu komunaren barruan egongo litzatekeena- eta "apurtezina" zaien Erresuma Batuen artean.

SF-k kanpaina Irlandaren batasunaren gaia alde batera utzi nahi izan du eta gai sozioekonomikoetan jarri du indarra, osasun, hezkuntza edo energia-fakturaren igoera kasu. Hala ere, hauteskundeetako emaitzak baloratzeke agerraldian, Mary Lou McDonald presidentea adierazi du SF-k uhartea bateratzearen alde lan egingo duela, baina "modu planifikatu, ordenatu, demokratiko eta erabat bakestsuan" egin behar dela. Bere asmoen arabera, bi erreferendumak (bata iparraldean eta bestea hegoaldean) "bost urteko epean" egin litezke.

Brandon Lewis Irlandako iparraldeko ministro britainiarrak DUP-i eskatu dio ministrorde nagusia izateko hautagaia aurkez dezan, "Ipar Irlandako Gobernu autonomoaren instituzionaltasuna berreskuratzeko". Irlandaren batasunari buruzko erreferenduma baztertu egin du, "unionisten botoen baturak handiago izaten jarraitzen duelako". DUP, UUP eta TUV alderdien artean botoen % 40,2 lortu dute.

Erresuma Batuen menpeko herrietako indar subiranistek aurrerapausoa eman dute hauteskundeetan. Sinn Féinen garaipen historikoak gain, Eskozian SNPk inoizko emaitzarik onenak lortu ditu tokiko hauteskundeetan. Galesen, Plaid Cymru hirugarren indarra da zinegotzitan (202), laboristen (526) eta independenteen (316) atzetik. ●